



2021-2022

ikasturteko hasiera oharra

Egun on, lankide,

2020-2021 ikasturte zaila atzean utzi eta gero, ikasturte berriari ekin diogu dagoeneko. Zailtasunak zailtasun, Haurreskolak Partzuergoko profesional taldea osatzen duzuen hezitzaile zein kudeaketa langileek zuen onena eman zenuten ikasturtea ahalik eta hoberen aurrera ateratzeko, pandemia kontestu korapilatsuan. Baita lortu ere.

Mobilizazio ikasturtea ere izan zen iazkoa, hori ere ezin dugu ahaztu: 8 greba egun burutu genituen. Haurreskolak Partzuergoko eta Hezkuntza Saileko arduradunen utzikeria begibistako izan zen ikasturte guztian zehar, guztiok ikusi genuen bezala. Bereziki, Zorione Etxezarraga gerentearen jarrerak arduratzen gintuen iaz, eta, zoritxarrez, horrela izaten jarraitzen du ikasturte hasiera honetan ere.

Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak ere baditu bere ardurak gurean, nahi edo nahi ez, eta ezin du orain arte bezala jokatzeko jarraitu; are gutxiago Zorione Etxezarraga gerenteak ezintasun nabarmenak erakutsi dituenean Haurreskolak Partzuergo bezalako egitura bat kudeatzeko. Bere dimisioa ere eskatzera iritsi ginen bai gure aldetik baita LAB eta ELA sindikatuekin batera.

Gauzak horrela, 2021-2022 ikasturtea hasi berri dugula, eta iaz gertatu zen guztia berriz gertatu ez dadin, lana serio hartzea eskatzen diegu hasiera-hasieratik bai bati eta baita besteari ere. Beraien ardura Haurreskolak Partzuergo publikoa behar eta merezi duen bezala kudeatzea eta zaintzea da.

Guri dagokigunez, ikasturte berriak zer ekarriko duen jakin gabe, datorrenari aurre egiteko eta gure onena emateko prest gaudela adierazi nahi dizuegu, orain arte bezala, bai gure aldetik baita LAB eta ELA sindikatuekin elkarlanean ere.

Bukatzeko, beste bahin azpimarratu nahi dugu izan dezakezuen edozein arazo edo zalantzaren aurrean, gurekin harremanetan jar zaitezketela lasaitasun osoz. Iturria bat izan edo beste bat izan, kontrastatu beti zuengana iristen den informazioa. Gu laguntzeko prest egongo gara, gure esku dagoen guztia egingo dugu.

Zuek ere ikasturte berriari aurre egiteko prest egongo zaretelakoan, jaso ezazue agur bat! Animo, eta, eutsi goiari!

Euskal Herrian, 2021eko irailaren 3an.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus